



22. ORDENANTZA FISKALA, AKARLANDAKO UDAL ATERPETXEKO ZERBITZUEN TASAK ARAUTZEN DITUENA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA

Erandioko Udalak Akarlandako Udal Aterpetxean zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik tasak ezarri eta eskatuko ditu Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz. Ordenantzaren eranskinean jasotzen dira aplikagarri diren tarifak.

2. ARTIKULUA

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. ARTIKULUA

Udal Administrazioak, norbanakoen eskariei erantzunez, zenbait zerbitzu ematea edota jarduerak burutzea da zergagaia.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. ARTIKULUA

Ondorengo hauek dira, zergadun moduan, tasa honen subjektu pasiboak: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 34. eta 35. artikuluan aipatzen dituen erakundeak, aipatutako zerbitzuak eskatuz gero, edota zerbitzuen onuradun edo zerbitzuak ukitutakoak izanez gero.

5. ARTIKULUA

Zerbitzuaren onuradun diren pertsonak eta eskaintzen diren ekintzetan parte hartzeko izena ematen dutenek izango dute tasak ordaindu beharra; adin txikikoen kasuan, gurasoek edo tutoreek izango dute ordaindu beharra.

IV. ZERGA OINARRIA

6. ARTIKULUA

Zenbateko jakin batek osatzen du zerga oinarria, eta kuotak Ordenantza honen eranskinean daude jasota.

V. SORTZAPENA



7. ARTIKULUA

Eskaintzen diren ekintzetan parte hartzeko izena ematean sortzen da tasa eta ordaindu beharra.

VI. LIKIDAZIOA ETA SARRERA

Izena ematean egingo da likidazioa eta dagokion ordainketa udalaren kutxan, bidezko den ordainagiriaren bidez.

VII. XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Tasaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza Fiskal honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

VIII. AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2008ko urriaren 29an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2009ko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

ERANSKINA

TARIFAK

OSTATU ETA JANTOKIKO ZERBITZUAK

| | Talde partikularrak | Elkartek |
|---------------|---------------------|----------|
| OSTATUA | 8,30 € | 6,20 € |
| MANTENU OSOA | 31,70 € | 25,00 € |
| MANTENU ERDIA | 20,60 € | 16,70 € |

- Gutxieneko taldea: 12 pertsona

- Erandioko herrikoentzat deskontuak:

Ostatua: %40ko deskontua aplikatu beharreko tarifyan (talde partikularra ala elkartea)

Mantenu osoa eta mantenu erdia: %20ko deskontua aplikatu beharreko tarifyan

- 14 urtetik beherakoak: %15eko deskontua tarifa bakoitzean

ANIMAZIOZKO EKINTZAK

Ez da ez ostaturik ez jatekorik sartzen.

Eskola programa (kirol abenturarik gabe)

15 kidetik gorako taldeentzat kalkulaturako tarifak. Pertsona bakoitzeko prezioak

| | |
|-------------------------|---------|
| 2 eguneko programa..... | 30,00 € |
| 3 eguneko programa..... | 45,60 € |
| 5 eguneko programa..... | 62,20 € |

Kirol abentura

| | |
|-------------------------|----------|
| 5 eguneko programa..... | 160,50 € |
|-------------------------|----------|

Abenturako kirol ekitaldi solteakHelduakAdin txikikoak

Itsasadarreko zeharkaldia I

25,00 €

19,50 €

Arku jaurtiketa

Mendiko ibilaldiak-orientazioa 17,70 €

14,50 €

Jolas alternatiboak

Eskalada eta tirolina

BTT ibilaldiak

Piragua ikastaroa (hasiera) 29,50 €

23,90 €

Itsasadarreko zeharkaldia II